

Iritsi da Ikastolaren egun handia!

Bihar hitzordu garrantzitsua dugu, Ikastolaren festa ospatuko baitugu. Ez ahaztu bizkotxo eta patata tortila lehiaketetan parte hartzea (ez da izenik eman behar, zuzenean eraman bakarrik). Irrintzi eta alpagata jaurtiketa lehiaketa ere izango ditugu aurtien. Sari bikainak izango dira bertan, bingo eta tonbolarako ere bai. Urtero bezala, aurtien ere 7€ kobratuko zaizkizue familia bakoitzari, eguneko gastuei aurre egiteko. [Hemen](#) [duzue egitaraua](#). Ingurumena zaintze aldera, ekar ezazue bakoitz zuen edalontzia etxetik. Animatu eta bihar ikusiko dugu elkar!




OLARRIZU guraso-elkartearen batzar orokorra

Zurriola Ikastolako OLARRIZU ikasleen guraso-elkarteak bere Ohiko Batzar Orokorra egingo du ekainaren 5ean, ostegunez, arratsaldeko 17:00etan Ategorrietako jangelan. Ikastolako bazkide guztiok dei egiten dizuegu parte hartzera. Hemen duzue [deialdia](#).



Eskola Bideak eta Oinbusa

Dakizuen moduan, Eskola Bideak eta Oinbusa martxa jartzeko bidean gara. [Bideo honetan](#) ikus dezakezue azken asteotan ikasleek egin dutenaren laburpen bat, eta gogoan izan asteartean, maiatzak 20, gurasoentzako bilera egingo dugula Ategorrietako jangelan. Bileran parte hartzeko eman izena [galdetegi honetan](#).



Zurriola Ikastolaren hamaikakoa

Abian da Euskaraldia, eta ekimen honekin bat, ikastolako hamaikakoa ezagutuko dugu datozen egunetan. LHko eta DBHko ikasleek elkarriketa egin diete hamaikakoa osatzen duten kide horiei, euskararekin duten harremanaren inguruan. Elkarriketa horiekin mural bana osatuko dugu egunez egun, hiru eraikinetako atarietan. Hurbildu gure hamaikakoa ezagutzera, eta [parte hartu Euskaraldian!](#)



X sarea uztea erabaki dugu

Zurriola Ikastolak X plataforman (lehen Twitter) zuen presentzia bertan behera utzi zuen duela aste batzuk, plataforma horrek hartu duen norabideak gure balioekin talka egiten duelako. Ikastolen Elkarteak ere erabaki bera hartu zuen lehengo astean, eta [gurentsa-ohar](#) honetan azaldu ditu zergatiak.



LH 3koak Arotz Enean

LHko irteeren deboraldia ireki dugu, eta astea ondo hasteko LH 3ko lagunok Arotz Enean izan gara hiru egunez. Eguraldia gure alde izan dugu eta kobazuloak bisitatzear gain, mendira txangoa egiteko aukera ere izan dugu. Hiru egun zoragarri pasa ditugu!



Zurrimendin gustura!

Oianleku eta Urmendin izan ginen igandean Zurrimendiko lagunok, eta pagadi, erreka, ur-jauzi ikusgarriak zeharkatu genituen Artikutzako trenbide zaharren ibilbidea jarraituz. Egun zoragarria izan zen, mendian, elkarrekin eta euskaraz! Ea hurrengorako jende gehiago animatzen garen!



ALTXA BURUA abestiak

"Altxa burua" ekimena bultzatzeko, ez bat, baina... hiru abesti plazaratu dira. Horietako bat, Zurriola ikastolako ikasleek osatzen duten Hi Su Ta Ke taldearena da. Beste bat, Seiurte Berrizko rock taldearena eta hirugarrena Pinitx, Porrotx eta Marimototsena. Ondorengo estekan dituzue hiru abestiak entzungai. <https://altxaburua.eus/abestiak> Hi Su Ta Ke taldearen "Altxa Burua" abestia gainera, zuzenean entzuteko aukera izango dugu bihar ikastolako festan.



Sare sozialak, internet... Jarrai dezagun ikasten!!!

"Sare sozialen eta interneten abusua: gazteen osasun mentalerako erronka" gaiarekin loturiko [Jakiunde](#) [Jardunaldiak](#) antolatu dira maiatzerako, eta hirugarren eta azken solasaldia maiatzaren 20an izango da, 19:00etan, Aquariumen. Gailu digitalen erabilera egokirako familientzako gakoez hitz egingo da, eta Miren Ros izango da hizlarien artean. Teknoizetik bertan parte hartzera animatzen zaituztegu!



Ikastolen Elkarteo Telegram eta WhatsApp kanalak

Ikastolen Elkarteak [WhatsApp](#) eta [Telegram](#) kanal ofizialak jarri ditu martxan. Kanal hauen helburua gizarteari, ikastola mugimenduari, gure komunitateari, informazioa modu azkar eta eraginkorrean helaraztea da. Eraiki dezagun ikastolen komunitate indartsu eta informatua!



OHARRAK / AGENDA:

- Udaleku irekiak: [Zirkularra](#) eta [Izen-ematea](#).
- HH: Euskaraz bizi. Jolasak atarian. 17:00. Maiatzak 19.
- HH4: Bi eguneko egonaldia Arotz-Eneara. Maiatzak 21-22. [Zirkularra](#).
- HH5: Bilera orokorra. Maiatzak 21. 17:00. [Zirkularra](#).
- HH5-LH6: Eskola bideei eta oinbusari buruzko guraso-bilera. Maiatzak 20. 16:45. Ategorrietako jangelan. [Izen-ematea](#).
- LH1: Gladys Eneara egunpasa. Maiatzak 19.
- LH2: Hiru eguneko egonaldia Arantzara. Maiatzak 21-23. Ordutegian aldaketa: autobusa 9:20ean abiatuko da.
- LH5: Osasun digitaleko saioak: hezkuntza emozionala eta teknologia berriak. Maiatzak 19-20.
- LH5: Heziketa afektibo sexualeko saioak. Maiatzak 21.
- LH6: Osasun digitaleko saioak: aldaketarako prestatzen. Maiatzak 19-20.
- LH6: Heziketa afektibo sexualeko saioak. Maiatzak 23. [Zirkularra](#).
- LH6: Guraso bilera Teknoizen eskutik. Maiatzak 19. 17:00. Ategorrietako jangelan.
- LH6: Adimen Gaitasun Handiko ikasleei arreta emateko protokoloa martxan. [Zirkularra](#).
- LH6C: GUREAK taldekoen lantegietara bisita. Goizpasa. Maiatzak 21.
- BATX1: Ohiko deialdiko azterketak. Maiatzak 19-23.
- BATX2: Ohiko deialdiko buletinak Alexian ikusgai. Maiatzak 20. 15:00.
- BATX2: Ez-ohiko azterketetarako eta USAPERako saioak. Maiatzak 21-Ekainak 3.
- Musika eta Dantza Eskola: Ikasurte amaierako emanaldiak. [Egitaraua](#).
- Musika eta Dantza Eskola: Hurrengo ikasurterako eskaintza. [Bideoa](#).
- Eskola Kirola: 21. Jardunaldia. A eta B.
- Haurtxokoa & Gaztelekua Euskaraldian: [Balorazio inkestia](#).

